

Mila milioi pezeta inguru gal ditzake Papelera Española enpresak aurten


Bost urteko plangintza estrategikoan 6.500 milioi inbertituko ditu

Atzo egin zuten Papelera Españolako akziodunek beren Batzar Nagusia. Bertan, sektoreak bizi duen krisialdiak eragindako iaizko 932 milioi pezetako (51,77 milioi libera) galerak eta bost urte iraungo duen eta 6.500 milioi pezetako (361 milioi libera) inbertsioa izango duen plangintza estrategikoaren zehaztasunak ezagutzera eman zituzten enpresako zuzendariak, merkatuetan taldearen posizioa «indartu» egingo dela ziurtatuz.

M.A. / BILBO

Papelera Españolako lehendakaria den Carlos Arestik eta Enrique Garran kontseilari ordezkariak atzo Bilbon adierazi zuten, 1990. urtean inportazioen eraginez izan zen konpetentzia eta pezetaren posizio gogorragatik eman zen prezioen beharakad 932 milioi pezetako (51,77 milioi libera) galerak ekarri zituzten.

Papelera Españolaren pasta kimiko eta prentsa paperaren azpisektoreak izan dira krisi egoera gehien pairatu dutenak, enpresako iturrien arabera. Galeren eragina nolabait leundu asmoz, Papelerak Energia Hidroelectrica de Navarrari jauzi hidroelektrikoak saldu zizkion eta Foinfer S.A enpresari, berriz, zenbait



Enrique Garran kontseilari ordezkariak ez du uste aurtengo ekitaldia hobea izango denik.

TXEMA FERNANDEZ / EFE

✓ «Papelera Española taldearen posizioa indartu eta paper-pasta industriak izaten dituen garai aldakorren eraginpean ez egotea» litzateke plangintzaren xedea.

mendi. Enpresako zuzendariak ez dute uste aurtengo ekitaldia hobea izango denik. «Plangintzen arabera aldaketak gerta badaitezke ere, mila milioi pezeta (55,55 milioi libera) inguruko galerak espero ditugu» adierazi zuen Garran kontseilari ordezkariak.

BOST URTERAKO PLANGINTZA Atzo aurkeztu zitzaizen akziodunei, 1991tik 1995era bitartean Papelera Española barruan dauden enpresetan egingo den Plangintza Estrategikoa. Bertan 6.500 milioi pezeta (361 milioi libera) in-

bertituko dira eta urteko 240.000 tona paper produzitzea dute helburu.

Aresti lehendakariaren esanetan, «Papelera Española taldearen posizioa indartzea, eta paper-pasta industriak izaten dituen garai aldakorren eraginpean ez egotea» litzateke plangintzaren xedea.

Garranek, bere aldetik, plangintzarekin produktuen espezializazioa eta zerbitzu eraginkorra lortu nahi dela azpimarratu zuen, «merkatuetan lehiatzeko gaitasuna daukan talde industrial dibertsifikatua sendotzeko».

ELA papergintza enpresa guztiak bilduko dituen taldearen alde

BILBO

ELA sindikatuak premiazkoztat jo du euskal papergintzako enpresa guztiak barruan hartuko dituen diseinu industriala lantzea. Bere iritziz, euskal papergintza taldea deritzanak ez ditu inolaz ere konponduko sektorearen arazoak.

Industri politikarako programaren barruan, ELAren ustez «lan arazotarako mekanismoak eratu behar dago, langabezia eta jubilazio arloetan, besteak beste, eta finantz bideak eskaini, lehengaien kostuak gutxitu eta Estatu zein EEEko merkatuetarako sarrera erraztuko duten merkatal sareak garatu daitezken».

Euskal sindikatu horretako informazio, kimika, energia, ehungintza eta arte grafikoetako federazioak ziurtatu duenez, euskal papergintza taldeak «ez dio arazo bakar bat ere konponduko sektore honi, izan ere, Papelera Española eta beste enpresaren baten planei erantzuten bait die, baina inondik ere ez sektore osoaren planteamenduei».

INDUSTRI DISEINU BATEN PARTE aldea, federazio horren iritziz, papergintzako enpresa guztientzako industri diseinu baten parte izan litekeen arren, «ezin liteke alternatiba egokia izan papergintza sektoreak EEEri begira dituen arazoak konpontzeko».

ELAk dioenez, papergintza ez da gero unerik txarrean: «Ez da beranduegi arazoak bideratzeko. Bada garaia sektorea sendotu eta iharduera maila egokian finkatzeko. Bide batez, papergileen inbertsio eta teknologi dinamika ezagatik antzeko egoeraren aurkitzen diren Euskadiko sektore batzuk indartuko genituzke».



EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

SARRERA-ESKARIAK 1991/92 IKASTURTEA

UPV/EHUaren ikastegietan sartu ahal izateko eskaeren auzpean: ekainaren 24tik uztailaren 5a arte, biak barne, izango da.

Arauek eta inprimakiak, ondoko bulegoetan jaso ahal izango dira ekainaren 24etik aurrera, 00.09etatik 13.00etara, aurtengo ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitate-Barrutian UBI/IEE egin duten ikasleen kasuan izan ezik, beroriek bere egunean sarre-erakaria egin zutelarik.

ARABAKO CAMPUSEKO ERREKTORORDEGOA

Manuel Iradier k/, 6 zk.

GASTEIZ

GIPUZKOAKO CAMPUSEKO ERREKTORORDEGOA

Urbieta k/, 30 zk.

SARBIDERAKO NEGOZIALEKUA

Ikasgelategiaren eraikina (beheko solairua)


LEIOA (BIZKAIA)

Unibertsitate-ikasketak jadanik hasirik dauzkaten ikasleek, beren expedientea lekuz aldatzea nahi izanez gero, ikasketak egin nahi dituzten ikastegian onarpena eskatu beharko dute, lehen esandako daten barruan.

Leioan, 1991ko ekainaren 19an

AKADEMI ANTOLAKUNTZARAKO ERREKTORORDEA

Fancisco Aldekoa Luzarraga



Proiektua ez da sektorearen berregituraketa plangintza.

Euskal Papergintza Enpresa Taldeari buruz

BILBO

«Guk makina gidaria jarriko dugu trenbidearen gainean eta bagoiak erantsi ahal izango dira, baina kontuz, ibili beharko gara 'arrastaka' dotorena lotu ez gatzagun». Horrela azaldu zuen Enrique Garran Papelera Españolako kontseilari ordezkariak, 'Euskal Papergintza Enpresa Taldearen' osaketarako proiektua. Euskal papergintzaren berregituraketa plangintza ez dela proiektua argi utzi nahi izan esan zuen Garranek, «aurka ere ez doa» azpimarratu zuen. Eusko Jaurlaritzak Papelera Espa-

ñolak gidatzen duen proiektua onartu zuen eta bere Konkurrentzialtasun Plangintzaren barruan sartu. Duela egun batzuk Jon Azuak esan zuenez, «Papelera Española inguruan bilduko diren enpresak papergintza sektorearen ingurukoak izango dira eta 3.000 lanpostu zuzen eta 17.000 zeharkako inguru mantenduko dituzte aurrikuspenen arabera».

Arrigorriagako Papelera Vizcaina, Errentaria eta Arangurenko Papelera Española, Papelera Irurena, Papelera de Araxes eta Papelera Arzabaltza lantegiek osatuko lukete euskal papergintza Taldea.

Gipuzkoako Bankuak 2.300 milioi irabazi ditu aurten

DONOSTIA

Gipuzkoako Bankuak 2.304 milioi irabazi ditu —zergak ordaindu aurretik— aurtengo lehenbiziko bost hilabeteetan, finantz entitateak ezagutarazi dituen datuen arabera.

Banketxe horren balantze osoa 320.385 milioiokoa zen maiatzaren bukaeran, % 11,6 igo delarik iaiztik. Mailegutan 181.095 milioi inbertituak ziztuen gipuzkoar entitateak, iaiz baino % 6,5 gehiago. Bezeroen errekurtso osoak 267.821 milioira iritsi ziren.

Entitate horrek apirilaren 15ean egin zuen 3.000 milioiko bono jaulkipena hartzeko epea, ekainaren 15ean bukatu zuen. Banketxeak adierazi duenez, eskariek jaulkitako diru kopurua gainditu zuten. Hori dela eta, hainbanaketari ekingo zaio jaulkipenean fin-katutako baldintzetan.